

# CCOON, ELAREN ETA LABEN EKARPENAK, EGINKIZUN DEN KONTRATU PUBLIKOEN LEGEARI



## **Sarrera**

Zerbitzu publikoak azpikontratatzearen ondorioz benetako administrazio paralelo bat sortu da Nafarroan, non milaka langile aritzen diren. Bestelako gogoetak alde batera utziz, azpikontratazio hori negoziogai izaten da sarritan enpresa pribatuendako, kasu gehiegitan langileen lan-baldintzen kontura.

Gure iritziz administrazio publikoa arduratu behar da ematen diren zerbitzuen kalitateaz, azpikontratatuenez ere bai. Eta ez dago kalitatezko zerbitzurik, zerbitzu horiek lan-baldintza prekarioetan ematen badira. CCOO, ELA eta LAB sindikatuontzat ukaezina da diru publikoaz ematen diren zerbitzuen azken erantzukizuna administrazioari dagokiola.

Orain arte jarraitu den prozeduraren arabera zerbitzuak kostu gutxienerako enpresei esleitu zaizkie, batzuetan zerbitzuaren kostutik behera ere esleitu dira, beheranzko enkante baten moduan. Ez dago erran beharrik horren eragina enpleguan eta lan-baldintzetan islatu dela.

Praktika horrekin batera administrazioek azken urteetan ezarri dituzten murrizketen eraginak ere baditugu. Enpresa batek ere ez ditu bere gain hartu murrizketen ondorioak, eragin txarrak langileei leporatu zaizkie beti. Baita ere negoziazio kolektiboaren estatalizazioa ondorio txarrak ekarri ditu azpikontraten langileekiko, Nafarroako hitzarmena erreferentzia bezala zeukan sektore batzuk hitzarmen estatalengatik ordezkatuak izan direlako.

Gorago azaldutakoa aintzat harturik, CCOO, ELA eta LAB sindikatuon ustez laster batean Nafarroako Parlamentuan eginen den Kontratu Publikoen Legearen izapidetzea abagune aparta izanen da lege-baliabideak ezartzeko, eta enpleguaren kalitatea hobetzeko.

## **Nafarroako Gobernuak aurkezturiko lege-egitasmoaren balioespena**

CCOOen, ELAren eta LABen iritziz, Nafarroako Gobernuak prest daukan lege-egitasmoa azkenean Parlamentura igortzen badu, aukera paregabea galduko da, azpikontratazioaren bidez ematen diren zerbitzu publikoen kalitatearekin benetako konpromisoa hartu dela erakusteko. Zeren zerbitzu publikoen kalitatea lan-baldintzen kalitatearen menpe dago.

Lege-egitasmoa Gobernuaren baitan onetsi baino lehen, sindikatu biok egin genituen ekarpenak ez dira aintzat hartu. Izan ere, ez da bermatuko subrogazioa kontrata guztietan, ez da txertatu nahitaez bete beharreko klausula sozialik —lehenik eta behin administrazioak behartzeko, eta gero enpresa esleipen-hartzaileak behartzeko—, enpleguaren gutxienerako estandar batzuk errespetatzera: lan-baldintzak, lan- eta segurtasun-neurriak, kontratazioan diskriminaziorik ez, partaidetza sindikala...

Kontratazio publikoan irizpide sozialak indartzea, genero irizpidea, subrogazioa, prezioa erabakigarria ez izatea, gutxienerako plantilla bat ezartzea, sindikatuen legitimazioa ematea, gardentasuna, ordezkarien partaidetza erraztea... legearen hitzaurrean bertan egon beharko litzatekeen edukiak dira.

Zein nolako zerbitzu publikoak nahi ditugun eztabaidatu behar da, eta eztabaida hori Kontratu Publikoen Legea izapidetu bitartean egin behar delakoan gaude. Eta eztabaida horren inguruan bi eredu daude: eredu ekonomizista, gauza oroien gainetik prezioa lehenesten duena; eta gizarte-eredua, kostuaren gainetik zerbitzuaren kalitatea azpimarratzen duena, kalitate hori zentzu zabalean ulertuz.

Aldarrikatzen den aldaketa soziala ez bada langile nafarren baldintzak kontuan hartzeko, CCOOen, ELAn eta LABen ez dugu deus ulertu.

## **CCOOen, ELAren eta LABen proposamenak, Nafarroako Kontratu Publikoen Legean klausula sozialak sartzeko.**

- Legean sartzen diren klausula sozialak nahitaez bete beharrekoak izatea: Klausula sozialak ez dira gomendioak izan behar baldintza-orriak prestatzeko, derrigorrez bete beharrekoak izan behar dira.
- Subrogazioa: Subrogazioa nahitaezkoa izan behar da zerbitzu-emakida kontratu guztietan edo zerbitzu-kontratuak kontratu guztietan.
- Gutxieneko maila gisa kasuan kasuko jardueraren sektore-hitzarmena aplikatuko da: Eta sektore-hitzarmenen artetik hurbilenekoa hautatuko da (Nafarroakoa, estatu-hitzarmenen aitzinetik). Jardueraren arabera zehaztuko da zein den hitzarmen aplikagarria, oso argi ez dagoenean edo eraginpeko esparruari begiratzuz hitzarmen bat baino gehiago dagoenean lan-baldintza hobekak dituen lehenetsiko da.
- Lan zentruko hitzarmenaren aplikazioa existitzen den kasuetarako: Lan zentruko hitzarmena aplikatzen den zerbitzuetan, indarrean egonda edo ultraaktibitatean, beti ere langileen ordezkariak eskatuta, lan zentruko hitzarmen hori pliegoetara gehituko da eta derrigorrezkoa izango da bere aplikazioa, gutxieneko baldintza bezala zerbitzu horren kudeaketa nahiko duten enpresa guztietarako.
- Enpresa- edo lantoki-hitzarmena sektorekoa baino onuragarriagoa denean, hori aplikatuko da: Baldintza-orrietan hitzarmen hori aplikatzeko betebeharra dagoela jaso beharko da. Horrela, gutxieneko maila bat izanen da zerbitzu hori kudeatzeko asmoa duten enpresa guztiendako.
- Gutxieneko ordu kopuru eta plantilla bat ezartzea, prestazioa kalitatezkoa izan dadin: Kontratak dirauen artean gutxieneko ordu kopuru eta gutxieneko plantilla bat izan behar da, lan-kargen araberrakoa. Orobat, laneratze-erak ordeztuko direla bermatuko da.
- Puntuazio-irizpideetan prezioa ez izatea erabakigarria: Balio handiagoa ematea zerbitzuaren kalitatea hobetzeko proposamen teknikoari, enplegua mantentzeko edo handitzeko, lan-baldintzak hobetzeko... Zerbitzuaren prezioetik beherako proposamenak baztertu egingen dira automatikoki. Era berean, eskaintza bat "jaitsiera ausartea" dela jotzeko, jaitsiera-portzentajea nabarmen beheratu behar da.
- Lan-osasun eta segurtasunarekin loturiko arauak zorrozki betetzea: mekanismoak ezartzea, enpresetan lan-arriskuen prebentzioaren eginbeharrak benetan betetzen diren administrazioek begiratu ahal izan dezaten.
- Gardentasuna kontratazioan: kontratazioetan bitartekotza-mekanismo publikoak erabiltzea, diskriminaziorik egiten ez dela bermatzearen. Diskriminazio guztiak baztertu behar dira, afiliazio sindikalarekin loturikoak ere bai. Elbarritasunak dituzten pertsonak kontratatzeke legezko eginbeharrak betearaztea. Kontratazioak "kutunkeria" edo "adiskidekeria" egiterik ez izatea.
- Gizarte-baldintzak betetzen ez dituzten enpresei zigorrak ezartzea: Kasurik larrienen kontratua bukatutzat joko da, eta enpresa horri eragotziko zaio Nafarroako administrazio publikoan epe batez lizitatu ahal izatea.
- Langileen eta haien ordezkarien partaidetza erraztea: Hala baldintza-orriak prestatzean, nola esleipen-prozesuetan. Era berean enpresek harturiko konpromisoak betetzen diren begiratzeko eta jarraitzeko prozedurak ezartzea. Sindikatuei erraztasunak emanen zaizkie aipaturiko jarraipen-prozeduran parte hartzeko, eta baita Kontratazio Publikoaren Batzari parte hartzeko ere, CENek parte hartzen duen bezala.

- Sindikatuiei legitimazioa ematea, Nafarroako Kontratuen Administrazio Auzitegian parte hartzeko: behar diren arau-aldaketak eginen dira, langileen ordezkariari eta sindikatuiei berriazko legitimazioa (aktiboa eta pasiboa) emateko, prozedurak hasteko eta prozeduretan agertzeko.

- Euskararen erabilera bultzatzea: enpresa azpikontratatuak, kontratuaren betekizuna jendearekiko arreta exijitzen den kasuetan, bere langileen euskara formakuntza ahalbidetzeko euskera plana egin beharko dute.

### **CCOOen, ELAren eta LABen urratsak**

1. Bilera egiteko eskatuko diegu parlamentu-talde guztiei, legea izapidetzerakoan aipaturiko klausula sozialak azkenengo testuan sartzeko.
2. Mobilizazio dinamika martxan jarriko dugu langile azpikontratatuak lan-baldintza duinak bermatzen dizkieten klausula sozialak sartzeari lortzeko.

Nafarroan, 2017ko azaroa.